

BASAURI BAI

Documento basado en los documentos
aprobado por la asamblea “si se puede”



BASAURI BAI

“Ahal da” asanbleak onartutako
dokumentuetan oinarritutako testua

OINARRI ETIKOAK

BASAURI BAI n parte hartu nahi duten guztiek konpromiso etikoa izan behar dute ekimenaren balio nagusiekin, eta bat etorri horrekin. Ondoko dokumentu honek konpromiso horren oinarri etikoak azaltzen ditu, BASAURI BAI Zirkuluek, BASAURI BAIren boto-emaeleek eta, oro har, herritarrek eztabaidatu ditzaten.

Herritarren parte-hartzea eta batasuna lortzeko tresna izateko sortu da BASAURI BAI. Gure asmoa da politika berreskuratzea, eta berriz ere pertsonen zerbitzura ipintzea. Erabaki politikoko eremu guztietan, pertsonak zuzenean parte hartzea bultzatzen dugu, bai eta politika publikoen esparruan ere.

BASAURI BAIko kide naizenez gero, hauxe da nire konpromisoa:

I. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala gure gizarteko arlo sozial, politiko eta instituzional guztietan bete dadila defendatzea.

II. Herritar guztiek zuzenean eta berdintasunean parte hartzea erabakiak hartzeko eremuetan, bai eta politika publikoak gauzatzeko esparruan ere.

III. Herri-subiranotasuna eta subiranotasun demokratikoa berreskuratzearen alde lan egitea.

IV. BASAURI BAIIn, parte-hartzea librea, borondatezkoa eta nahi duten pertsona guztiei irekia izan dadila jagotea; Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren alde eta herritarren parte-hartze zuzen edo demokratikoaren alde dauden pertsona guztiek har dezaten parte, estatus zibila edo soziala bereizi gabe.

V. Iritzi guztiak zintzo eztabaidatzea, eta pertsona guztiak errespetatzea, euren pentsamoldea gorabehera.

VI. Ordezkaritza politikoko erakunde guztietarako hautagaiak, gizon eta emakumeak, herritar guztiek parte hartutako hauteskunde primarioen bidez hautatu daitezela eskatzea eta errespetatzea; beti ere, zerrenda irekiak erabiliz, eta parekidetasun irizpideak aintzat hartuz. Transfugismoa gaitzestea, eta, herritar guztiek parte hartutako hauteskunde primarioen bitartez aurretik funtzio horretarako hautetsiak izan ezean, BASAURI BAIIn kargurik ez edukitzea zaintzea.

VII. Hauteskundeak egin baino lehenago edo egin ostean, beste talde politiko batekin itunen bat eginez gero, aurrez, lurralde ordezkaritza guztietan eta herritar guztiei galdetuta eta beraiek demokratikoki oniritzia emanda izan dadila eskatzea eta errespetatzea.

VIII. Dena delako kargudun hautetsia ordezkaritza hutsa izan dadila eskatzea eta errespetatzea; berak agintaldian zehar hartutako erabakiak parte-hartze ireki eta demokratiko bidezko metodoan ebatzitzekoak izan behar direla onartuta.

IX. BASAURI BAIren kudeaketa ekonomikoan, irabazi-asmoa duten erakundeen produktu finantzarioak erabiltzea eragoztekoa. Beraz, banku bidez finantzatzeko aukera beren-beregi baztertzeko.

X. BASAURI BAI plataforma eraikitzea, politikak interes pribatuen zerbitzura egoteari utzi diezaion. Horretarako, BASAURI BAIko kargudun hautetsiek eta barne-kargudunek honako hauek onartuko dituzte:

a) Ordezkaritza maila bakoitzeko zehaztuko den soldata-muga; onarturik dena delakoagatik ordainetan jasotako dirua gardentasunez erakutsi behar dela, kontuak publikoki azaltzeko obligazioa dagoela, eta ondarearen kudeaketa gardena egin behar dela.

b) Oro har, pertsona bakar batek zenbat funtzio publikotan jardun ahal izango duen zehaztutako muga.

c) Ordezkarri izateagatik zuzenean lortzen diren pribilegio juridiko eta material guztiei uko egitea, eta, kargu publikoak berak dakarren erantzukizuntzat harturik, aforamendu judizialez baliatzea ekiditea.

d) Ordezkarri gisa jardun bitartean eta jardunaren amaieran, kontuak argi eta garbi azaltzeko konpromisoa.

e) Kargudun hautetsi bakoitzari dagozkion eginkizunetatik kanpoko interes pertsonal, ekonomiko eta politikoak babesteko bestelako kargudunak ez hautatzeko konpromisoa; eta horrelako interesen aldeko erabakiak hartzeari uko egitea. Herritar Kontseiluak Bateriaezintasunen Erregimena prestatuko du hori bermatzeko, irizpide etiko eta arauak zehaztuta.

f) Onartzea, kargu publiko batean aritu ostean, ordezkari gisa eramandako arlo horri lotuta dauden edo interesen bat izan duten enpresa pribatuetan, ezin dela lanik egin; eta ardura politiko horiekin nolabaiteko lotura duten enpresetan, kargua utzi eta 10 urtean zuzendaritzan aritzeko debekua izatea; eta estatuaren ekonomikari eragiten dioten sektore estrategikoetan diharduten enpresetako administrazio kontseiluetako kide sekula izateko debekua.

g) Eskubide eta Bermeen Batzordeak argitaratutako Araudian zehaztu beharko diren falta edo delituengatik, inputatu, auzipetu edo kondenatuz gero, dena delako kargu publiko, alderdi barruko kargu edota hautagaitzari uko egiteko konpromisoa. Ustelkeria delituak araudi horretan egongo dira jasota, beti ere.

h) Ahal Duguko kideak edo bere senide batek interes ekonomikoren bat izan dezakeen enpresekin kontratazio publikoak egitea ekiditea.

i) Agintaldiak mugatzea; onarturik zortzi urtean baino ezin dela jardun kargu publiko batean edo alderdi barruko karguren batean. Oso kasu bereziren batean baino ezingo litzateke luzatu agintaldia; gehienez, 12 urtera.

Ados etorrita, askatasunez sinatzen dut konpromiso hau; bertan azaltzen diren puntu guzti-guztiak ulertuta, eta beraien aldeko defentsa pertsonak libreagoak izango diren gizarte justuagoa bat lortzeko bermerik onena dela sinetsita.